



## PRENTSA OHARRA

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 18a


### EUSKADIN ESTATUKO HIPOTEKA BETEARAZPEN KOPURU TXIKIENA ERREGISTRATU DA

Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) egin berri duen azterlan bateko datuak ikusita, Euskadi hipoteka-betearazpen gutxien egin diren Estatuko autonomia-erkidegoa da.

Estatistikako erakunde horren arabera, EAEn 122 hipoteka-betearazpen egin dira 2014ko lehenengo hiruhilekoan; Estatu osoan, berriz, 18.971. Kopuru horrek Euskadiko betearazpen-tasa % 0,04ra murriztu du; hau da, Estatuko batezbestekoa (% 0,21) baino bost aldiz txikiagoa da.

Ildo berean kokatzen da Etxebizitzako Behatokiak 2013ko hipoteka-betearazpenen eta etxegabetzeen inguruan egindako azterlana ere. Organo horrek, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren mendekoak, 2010ean jarri du inflexio-puntua. Urte hartan, 1.175 betearazpen erregistratu ziren, eta orduz geroztik, kopurua etengabe txikitu da (2011n, 1.174; 2012n, 1.061; 2013n, 817). Eta espero izatekoa da, gaur egungo dinamikak berdin jarraituz gero, 2014an muga hori haustea.

*Hipoteka-betearazpen kopuruaren bilakaera,  
lurralde historikoen arabera (2007-2013)*





Fuente: Consejo General de Poder Judicial


Hipoteka-betearazpenen kasuan bezala, 2013an etxetik botatzeko epaile-aginduetan ere murrizketa nabarmena gertatu zen –hiru lurraldeetan–: 2012an 2.524 botatze-agindu izatetik hurrengo urtean 1.838ra igaro ginen (-% 27).

Gertaera horrek joera-aldaketa bat ekarri zuen 2008-2012 epeko botatze-aginduen hazkunde handiarekin alderatuz. Ondorioz, 2012 eta 2013 artean, autonomia-erkidegoko botatze-aginduek Estatuko kopuru osoaren gainean duten pisu erlatiboa % 3,6koa izatetik % 2,8koa izatera igaro zen eta horrek adierazten du krisiak EAEn eragin txikiagoa izan duela Estatuan baino, botatze-aginduei dagokienez.

## Hipoteka-jarduera txikiagoa

Autonomia-erkidegoko hipoteka-jarduerari buruzko estatistikak, berriz, ez dira hain optimistak. Ildo horretan, Etxebizitzako Behatokiaren emaitzek erakusten dutenez, 2013an hipoteka-eraketan murrizketa handia gertatu zen; hain zuzen ere, aurreko urtearekin alderatuz gero, % 28,2ko balantze negatiboa eman zuen.

EAEn eratutako etxebizitzaren gaineko hipoteka kopuruaren bilakaera (2003-2013)



Fuente: Consejo General de Poder Judicial

2013an EAEn eratutako hipoteka kopurua hipoteka-jarduera altueneko urtekoa baino 3,5 aldiz txikiagoa da. Altuena 2006koa izan zen; zehazki, 43.328 hipoteka sinatu zituzten ekitaldi bakarrean. Urte horrekin alderatuz, Estatuko jaitsiera (-% 85,1) EAEnkoa (-% -72,0) baino nabarmenagoa da; izan ere, 2013an, Estatuan, 2006an eratutako hipoteken zazpiren bat bakarrik eratu zen.

Era berean, Euskadiko etxebizitzek 2013an hipotekei aurre egiteko finantza-ahalegin pixka bat txikiagoa egin behar izan dute: hipoteken batezbesteko zenbatekoan % 9,3ko murrizketa esanguratsua ikusten da (120 mila euro; aurreko urtean, aldiz, 133 mila euro). Nabarmenezkoa da 2013an hipotekako



43.000 euro baino pixka bat gehiagoko murrizketa nabarmena erregistratu zela, 2007ko kopuruekin alderatuz.

Kuoten batezbestekoa murriztu arren (2013an, 665 euro), finantza-ahaleginak Euskadiko etxeen bilakaeran erabakigarria izaten jarraitzen du, soldata-kostuaren gainean duen pisua % 29,7koa delako; hau da, Estatuan baino zazpi hamarren txikiagoa bakarrik.

Nahiz eta EAEko hipoteken batezbesteko zenbatekoan murrizketa handiagoa gertatu den, Estatuan 2013ko laugarren hiruhilekoan eratutako hipoteken batezbesteko zenbatekoaren ranking-ean, EAE batezbesteko zenbateko altuena duten autonomia-erkidegoen artean dago; Madrilgo Erkidegoak, Ceutak eta Melillak bakarrik gainditu dute.